

Artzainen pilotalekuak Aralar mendian

Gaur egungo artzaintza ezagutzen duenarentzat lan honen izenburua ez da oso ulerterraza izango. Mendira igotzen dituzten artalde handiekin jolaserako ez bait zaie beta askorik gelditzen.

Baina kontuan izan dezagun orain dela ehun urte pasa arterako kontuekin gatozela. Orduko artzainen artaldeak ehun burutik gorakoak gutxi izaten ziren. Gainera udarako larreetan mendian zeudenean, familia berarekin txabolan egoten zen.

Behin sanjoanetako ilbeheran, elkarren auzolanean, ardien ileak moztu ondoren, esnea zuten ardiak jetzi, artaldea larrera eraman eta gazta pare bat egin ondoren, artzainak goiza libre zuen. Eguneko janariak bere emazteak prestatuko bai zituen.

Orduan inguruko saroietako artzainak bildu eta, egun askotan, beren aurrekoei ikasitako jolasak eginaz pasatzen zuten denbora. Ezagunak dira Aralarren Alotzako Saltarria, altxatzeko harriak eta pilotalekuak. Makilak zeharkatzeko jolasa ere egiten zuten.

Pilotara itzuliaz, orain dela berrogei urte Aralarko artzainek erakutsi zidaten pilotalekuak, izen eta guzti, hamabi hauek dira: Alotzako, Pagabekoa, Ganboakoa, Pardeluskoa, Unikoa, Inguitzikoa, Antsesaokoa, Igaratzakoa, Lareokoa, Elusbelzkoa, Mendibilkoa eta Pikutako ordeakoa. On Joxemiel Barandiaran jaunak bere *Anuario de Eusko Folklore* urtekariaren 26. alean argitaratu zidan lanaren mapan bederatzi azaltzen dira.

Pilotalekua prestatzeko, artzainak zelaian ordeka une bat aukeratzen zuten, eta aitzurrarekin kanal txiki batzuk eginaz laukizuzena osatzen zuten eta, erdian beste kanal bat eginaz, jolaserako bi aldeak nabaritu. Alde banatatik jokalaria bat edo bi zirelarik, eurak egindako pilotekin, saio handiak egiten omen zituzten.

Beren familietako umeak zituzten ikusleak eta txalo egiten zietenak. Ondo gogoan daukat urte askoan artzaina izan zen haietako umetxo batek nola esaten zidan euren aitek beren saioa bukatu ondoren, azken hitzak esaten zituzten bitartean, mutikoei ere nola egiten zituzten beren pilota saioak. Eta hau XIX. mendeko azkeneko urteetan izan zen. Eta pilotan ez zuten Aralarko artzainek bakarrik jolasten, baizik eta Iparraldeko mendietan zeudenek ere bai.

Azken honen harira, behin irakurri nuen berri batekin gogoratu naiz. Tennis izenarekin mundu guztian ezaguna den jolasarekin hain zuzen ere. Zionez, ingelesak, tennis jolasa ingeles batek asmatu omen zuen. Euskal Herriko Iparraldean oporrak igarotzen ari zela, lurrean laukizuzen bat marraztu, erdian sare bat zutik jarri eta alde banatan jokalaria bat edo bi zirela pilotan jolasten omen zuten. Baina esku-hutsean zebiltzanez, mindu egingo zitzaizela eta, bere herrira joan zenean, erraketarekin jolasten hasi omen zen. Baina frantsesek tennis jolasa frantses batek asmatu zuela esaten omen dute. Eta oporretan Euskal Herriko Iparraldean egun batzuk igarotzen zegoelarik, bertakoak pilotalekuan jolasten ikusi ondoren, hau ere bere herrira itzuli zenean eskuak babesteko erraketarekin hasi zelarik. Berdin zait niri erraketarekin jolasten hasi zena

ingeleza edo frantsesa bazen, baina garbi dagoena da tenis jolasa gure pilota jolasaren ondorengoa dela.

Badago gainera beste kointzidentzia bat ideia hau indartzera datorrena. Tenisen egiten diren tantoak hamabosnaka batzen dira, eta telebistan pilota-partidak ikusten ari garela, tantoak egin ahala, zenbat aldiz entzuten diogu Euskitze jaunari “kintzea egin” duela? Edo, partida bukatzeko, “kintze” bakarraren faltan daudela?

José Zufiaurre – Etniker Gipuzkoa – Etniker Euskalerrria Taldeak